FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

# ETXALARKO HERRIKO OSTATUA ERRENTAN EMATEA, LEHIAKETA PUBLIKOAREN BIDEZ

## KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK

# ARRENDAMIENTO DEL LOCAL "HERRIKO OSTATUA" DE ETXALAR, MEDIANTE CONCURSO PÚBLICO

## PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

### 0. ARAU OROKORRAK

Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu hau, errentamendu-modalitatean, zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko modu gisa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 202. artikuluan xedatutakoaren babesean lizitatzen da, eta baldintza-agiri honen xedapenen mende jartzen da, bai eta Foru Lege horretan aplikatzekoak diren xedapenen mende ere (6/1990 Foru Legea, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa), bai eta zerbitzu publikoen kudeaketaren arloan, ingurumena babesteko jarduera sailkatuen, zaratak edo dardarak sortzen dituzten jardueren, ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan, eta gaur egungo edo etorkizuneko xedapen aplikagarri guztien mende ere.

Horrez gain, esleipenduna lotuta geldituko da bere eskaintzan agertutako baldintzengatik, Etxalarko Udalak onartutakoak.

Lehiaketan parte hartzeak erran nahi du lizitatzaileak onartu egiten dituela dauden egoeran dauden lokalak, instalazioak eta makinak, eta kontserbazio-egoera ezin hobean daudela onartzen duela, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretik berariaz kontrakoa adierazi ezean.

### 0.- NORMAS GENERALES

El presente contrato de gestión de servicio público, en la modalidad de arrendamiento como forma de gestión indirecta de servicios públicos, se licita al amparo de lo dispuesto en el artículo 202 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y se somete a las disposiciones del presente pliego así como a las que resulten de aplicación de la citada Ley Foral 6/1990, la Ley Foral 2/2018 de 13 de abril de Contratos públicos y por cuanta legislación resulte de aplicación tanto en materia de gestión de servicios públicos como en la reguladora de actividades clasificadas para la protección del medio ambiente, actividades emisoras de ruidos o vibraciones y espectáculos públicos y actividades recreativas, y por cuantas disposiciones presentes o futuras sean de aplicación.

Además de ello, la adjudicataria queda vinculada por los términos de su oferta que sean aceptados por el Ayuntamiento de Etxalar.

La participación en el concurso supone que la licitadora acepta los locales, instalaciones y la maquinaria con que están dotados en el estado en que se encuentran, reconociendo que se hallan en perfecto estado de conservación, salvo manifestación expresa en contrario formulada con carácter previo a la finalización del plazo de presentación de ofertas.

### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Etxalarko Herriko Ostatuaren taberna eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua da lizitazio honen xedea. Ostatua udaletxearen beheko eta lehenengo solairuan kokatuta dago. Eginen den inbentarioan zehaztuko dira barnean dauden ekipamenduak eta altzariak.

### 1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del arrendamiento lo constituye el servicio de bar-restaurante en el señalado local "Herriko Ostatua" de Etxalar, sito en la planta baja y primera del edificio de la Casa Consistorial, con los equipamientos y mobiliario contenidos que vendrán especificados en el inventario que se confeccione al efecto.

### 2. ERRENTAN EMATEAREN EPEA

Alokairuaren iraupena bortz (5) urtekoa izanen da, kontratua behin-betiko onesten den datatik kontatzen hasita.

Epe hori bertze bortz urtez luza daiteke, adjudikaziodunak idatziz eskatzen badu. Luzapen hori Etxalarko Udalak onetsi beharko du, Osoko Bilkuran.

### 2.- DURACIÓN DEL ARRENDAMIENTO

La duración del arrendamiento será de cinco (5) años, a contar desde la fecha de adjudicación definitiva del contrato.

Este plazo se puede prorrogar por otros cinco años más, previa solicitud escrita de la personal adjudicataria. El órgano competente para conceder esta prórroga será el Pleno del Ayuntamiento de Etxalar.



ETXALAR
Código Seguro de Verificación: MHCA AAE4 FAJQ EVN9 QZ27
HERRIKO OSTATUA 2026_Baldintza plegua_pliego condiciones
La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en https://egoitzaelektronikoa.etxalar.eus/

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

## 3. ERRENTA

Hileko errenta, lehen urtean, 400,00 eurokoa izanen da (BEZ kanpo). Bigarren urtetik gora, 5. urtea egin arte, 500,00 eurokoa izanen da (BEZ kanpo), eta urtero gehituko zaio dagokion KPIren igoera.

Lokalaren jarduerari dagozkion gastuak (hornidura elektrikoa, ura, telefonia, hondakinen tasak, etab.) esleipendunaren kontura izanen dira.

## 3.- RENTA

Se establece una renta mensual de 400,00 euros, más IVA., durante el primer año de contrato. A partir del segundo año, y hasta el quinto, la renta será de 500,00 euros más IVA, y cada año se añadirá la subida del IPC correspondiente.

Los gastos correspondientes al ejercicio de la actividad del local (suministro eléctrico, agua, telefonía, tasas de residuos, etc.) serán de cuenta de la adjudicataria.

## 4. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA BALDINTZA ZEHATZAK

Administrazioarekin kontratuak egin ahal izanen dituzte jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 22 artikuluan aipatzen diren baztertze kasuen artean sartuta ez badaude, eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatuko dutenak.

Pertsona bat baino gehiago elkartuta aurkezten badira, Administrazioaren aurrean betebehar solidarioa izanen dute, eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratuko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen izanen dituena.

Halaber, nahitaezkoa izanen da Etxalarko Udalean eta Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatean (lehen, Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean) zerga-betebeharrak egunean izatea.

## 4.- CAPACIDAD PARA CONTRATAR Y CONDICIONES ESPECÍFICAS

Podrán tomar parte en la licitación las personas físicas y jurídicas que tengan capacidad de obrar para suscribir el contrato, no se hallen incursas en ninguna de las causas de exclusión del procedimiento de licitación a que se refieren el artículo 22 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

En caso de que concurran varias personas de forma agrupada, quedarán obligadas solidariamente ante la Administración, debiendo nombrar una persona como representante o apoderado/a único/a con facultades bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones del contrato.

Asimismo, será requisito indispensable estar al corriente de las obligaciones tributarias en el Ayuntamiento de Etxalar y en la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak (anteriormente, Mancomunidad de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak-Cinco Villas).

## 5. EUSKERA.

Lizitatzaileek zerbitzua euskaraz eskaintzea baloratuko da.

Euskararen ezagutza titulu ofiziala aurkeztuz egiaztatu ahal izanen da
Halakorik ez badu, lizitatzaileak izenpetutako deklarazioa aurkeztuko du, III. ERANSKINEAN adierazitako ereduaren arabera; horren bidez, Bortzirietako euskaltegietan ematen diren euskarazko prestakuntza-ikastaroak egiteko konpromisoa hartzen duela adieraziko du.

## 5.- EUSKERA.

Se valorará que las personas licitadoras ofrezcan la prestación del servicio en euskera.

El conocimiento de euskara se acreditará mediante la presentación de título oficial.
En caso de no disponer del mismo, la persona licitadora deberá presentar una declaración, conforme al modelo que figura en el ANEXO III, mediante la cual se compromete a la realización de curso(s) de formación en euskera impartidos en los euskaltegis de Bortziriak.

## 6. BEHIN BEHINEKO BERMEA

Lizitazioan parte hartu ahal izateko, **600,00 euroko behin-behineko fidantza** jarri beharko dute interesdunek.

## 6.- FIANZA PROVISIONAL

Para concurrir a la licitación, las personas interesadas deberán presentar una **fianza provisional por importe de 600,00 euros**.

Aipatutako fidantza honako moduren batean aurkeztu daiteke: udalaren konturen batean transferentzia eginez (Caixabank edo Nafarroako Rural Kutxan), edo 205/1998 Foru Dekretuak, uztailaren 21ekoa, arautzen duen abala osatuz, kopuru horrekin.

## 7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

**Eskaintzak Etxalarko udalaren idazkaritzan aurkeztuko dira 2026ko apirilaren 14rako, eguerdiko 12:00ak baino lehen.**

Proposamenak Etxalarko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, jendaurreko ordutegian, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak baimentzen dituen erregistro ofizialetako batean; kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio, proposamenak aurkezteko gehieneko epearen barruan, udala@etxalar.eus helbidera bidalitako posta elektronikoaren bidez.

Eskabide-idazkian, aurkezten den lizitatzailearen identifikazioa jasoko da, eta berariaz jasoko dira posta-helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, jakinarazpenetarako.

Proposamenak ITXITAKO KARTAZAL BATEAN aurkeztuko dira, kanpotik izenbutu hau zehaztuta: “Etxalarko HERRIKO OSTATUA errentan hartzeko proposamena”. Kartazal horren barnean, berriz, ITXITAKO HIRU KARTAZAL aurkeztuko dira, kanpotik behar bezala identifikatuak, eta adierazpen hauekin:

“1. GUTUN-AZALA: AGIRI ADMINISTRATIBOAK”. Bertan agiri hauek sartuko dira:

a) Eskaera, plegu honen I. ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera.

Helbide elektroniko bat adieraziko da, kontratu publikoen inguruko erreklamazioak egiteko, jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez egiteko.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, plegu honen II. ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera.

c) Inoren izenean proposamena aurkezten dutenek, eskuduntza hori egiaztatzen duen agiria.

Dicha fianza podrá constituirse mediante transferencia a las cuentas del Ayuntamiento en Caixabank o Caja Rural de Navarra, o bien mediante aval constituido según el Decreto Foral 205/1998, de 21 de julio, por el importe señalado.

## 7. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

**Las ofertas deberán presentarse en la Secretaría del Ayuntamiento de Etxalar para el 14 de abril de 2026, antes de las 12:00 horas.**

Las proposiciones deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Etxalar, en horario de atención al público, o en alguno de los registros oficiales que autoriza el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, debiendo comunicarlo en este caso al Ayuntamiento dentro del plazo máximo de presentación de proposiciones, mediante correo electrónico remitido a la dirección udala@etxalar.eus.

El escrito de solicitud contendrá la identificación de la persona licitadora que se presente, haciendo constar expresamente una dirección postal, teléfono y dirección de correo electrónico a efectos de comunicaciones.

Las ofertas se presentarán en UN SOBRE CERRADO, en cuyo exterior constará la inscripción “Propuesta para el arrendamiento del local HERRIKO OSTATUA de Etxalar”. Dentro de ese sobre se incluirán TRES SOBRES CERRADOS y debidamente identificados en su exterior, con las siguientes menciones:

“SOBRE Nº 1: DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA”; se incluirá la siguiente documentación:

a) Instancia de solicitud, conforme al modelo que figura en el ANEXO I del presente pliego.

En la misma figurará una dirección electrónica para la realización de notificaciones a través de medios telemáticos, a efectos de reclamación en materia de contratos públicos.

b) Declaración responsable de la persona licitadora, conforme al modelo que figura en el ANEXO II del presente pliego.

c) Si la oferta se presenta por representación, documentación acreditativa de la misma.



FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

d) Behin-behineko bermea jarri dela egiaztatzen duen agiria.

Eskatzen diren agiriek jatorrizkoak izan beharko dute, edo bertzela, notarioak edo administrazioak egiaztatutako kopiak. Originalak itzuli eginen dira, hala eskatu ezkero.

"2. GUTUN-AZALA: AGIRI TEKNIKOAK". Bertan sartu behar da ustiapen proiektua.

Gutun-azal honetan sartuko da, hala bada, euskararen ezagutza egiaztatzen duen agiria, baloratua izan dadin.

Gutun-azal horretan eskaintza ekonomikoa ezagutzea ahalbidetzen duen edozein datu sartuz gero, berehala baztertuko da aurkeztutako eskaintza.

"3. GUTUN-AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA". Bertan sartu behar da eskaintza ekonomikoa, plegu honen IV. ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera.

Lizitazio-prezioa baino balio txikiagoa duten proposamenak ez dira onartuko.

Aurkeztutako eskaintza loteslea izanen da lizitatzailearentzat.

**8. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Kontratazio-organoari dagokio lehiaketa esleitzea, eta, horretarako, lehiaketaren helburuetarako onuragarriena iruditzen zaion proposamenaren arabera ebatziko du, eskaintza ekonomiko aldekoenarekin bat etorri beharrik gabe; kontratua esleitzeko, kontratazio-mahaiak irizpide hauei jarraituko die:

**<u>1.- Eskaintza ekonomikoa: 25 puntu gehienez.</u>**

Puntuaziorik handiena eskaintzarik onenari emanen zaio, hau da, kanon gisa lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarekin alderatuta zenbateko handiena duenari. Gainerako eskaintzak modu zuzenean proportzionalean baloratuko dira, formula honen arabera:

$$P = \frac{25 * esk.}{alt.}$$

non *P* da emandako puntuazioa, *alt.* da eskaintza altuena eta *esk.* da puntuatzen den eskaintza.

d) Justificante de haber constituido la fianza provisional.

Todos los documentos señalados deberán ser originales o fotocopias legalizadas notarial o administrativamente. Los originales serán devueltos, previa petición del/de la ofertante.

"SOBRE Nº 2: DOCUMENTACIÓN TÉCNICA", en cuyo interior se incluirá el proyecto de explotación.

En este sobre deberá incluirse, en su caso, la titulación de euskera, para su valoración.

La inclusión en este sobre de cualquier dato que permita conocer la oferta económica determinará la inmediata exclusión de la oferta presentada.

"SOBRE Nº 3: OFERTA ECONÓMICA", en cuyo interior se incluirá la oferta económica, conforme al modelo que figura en el ANEXO IV del presente pliego.

No serán aceptadas proposiciones por valor inferior al precio de licitación.

Las ofertas presentadas vincularán a los/las licitantes.

**8.- CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN**

Corresponde al órgano de contratación la adjudicación del concurso y, a tal fin, resolverá en orden a la proposición que considere más ventajosa para los fines del mismo, sin que necesariamente tenga que coincidir con la oferta económica más favorable; para la adjudicación del contrato, la Mesa de Contratación seguirá los siguientes criterios:

**<u>1.- Oferta económica: máximo 25 puntos.</u>**

La máxima puntuación se otorgará a la mejor oferta, considerada ésta como aquella que suponga un mayor importe como canon respecto al presupuesto base de licitación; las del resto de ofertas se valorarán de forma directamente proporcional de acuerdo con la siguiente formula:

$$P = \frac{25 * Of.}{máx.}$$

donde P es la puntuación obtenida, máx. es la oferta máxima y Of es la oferta correspondiente a la licitadora que se valora.

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

**2.- Ustiapen-proiektua: 75 puntu, gehienez.**

a) Kontratuari atxikitako pertsonek euskara jakitea: 10 puntu, gehienez:

Ahozko B2 mailako (B2 titulua edo baliokidea) edo goragoko mailako jendaurreko zuzeneko arretako pertsona bakoitzak euskara jakiteagatik: 5 puntu titulua duen kontratuari atxikitako pertsona bakoitzeko.

b) Bideragarritasun-plana, gehienez 20 puntu.

Honekin neurtuko da proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa. Hartarako, analizatuko dira bai inbertsioak eta negozioak eragiten dituen gastuak, bai aurrez ikusten diren sarrerak.

Aipaturiko bideragarritasun-planeko gutxieneko edukia izanen da: taldearen aurkezpena (esperientzia, formazioa, etab.); negozioaren ideia deskribatu eta garatu (zer egin behar dut, zergatik eta nola); zeintzuk izanen dira nire bezeroak; inbertsioak eta hasierako gastuak (zer behar dut negozioari hasiera emateko eta ze gastu izanen ditut jardueran); diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena; publikoarentzako irekitze ordutegi aurreikuspena, atsedenaldiak eta opor-egunak aipatuz; emaitzak eta ondorioak (proiektuaren puntu sendoak eta ahulak).

Helburuen aurreikuspenak errealista izan behar du eta negozioaren ahalbideetara egokitua egon (langileak, lanorduak, kokapena,…).

c) Ostalaritzaren arloan egiaztatutako esperientzia: 15 puntu, gehienez.

- Bertzeren konturako lana lan egin duen establezimenduen txosten idatzien, lan-kontratuen edo lan-bizitzaren bidez egiaztatuko da. 0,25 puntu emanen dira hilabete bakoitzeko.
- Norberaren konturako lana Ogasunaren dokumentazioarekin egiaztatuko da (EEIn alta eta baja ematea edo BEZaren aitorpena). Dokumentaziorik ezean, zinpeko aitorpena aurkeztu ahal izanen du, negozioa eta haren iraupena deskribatuz. 0,40 puntu emanen dira hilabete bakoitzeko.

d) Negozioa sustatzeko plana: 10 puntu, gehienez.

Azaldu behar da hemen nola lortuko dituen bezeroak, zeintzuk izanen diren erabiliko dituen tresnak.

**2.- Proyecto de explotación: máximo 75 puntos.**

a) Conocimiento de euskera de las personas adscritas al contrato: máximo de 10 puntos:

Por conocimiento de euskera de cada una de las personas de atención directa al público con nivel oral B2 (Título B2 o equivalente) o superior: 5 puntos por cada persona adscrita al contrato que tenga título.

b) Plan de viabilidad, hasta un máximo de 20 puntos.

El plan de viabilidad permitirá evaluar la rentabilidad económica del proyecto. Para ello, se analizarán tanto las inversiones y gastos que el negocio ocasiona como los ingresos que se prevén obtener.

El contenido mínimo de dicho plan de viabilidad será: presentación del equipo (experiencia, formación, etc.); descripción y desarrollo de la idea de negocio (qué voy a hacer, por qué y cómo); quiénes van a ser mis clientes; inversiones y gastos iniciales (qué necesito para empezar y que gastos voy a tener en el ejercicio de mi actividad); previsión de ingresos y gastos; previsión de horarios de apertura al público del negocio, indicando días de descanso y periodos vacacionales; resultados y conclusiones (puntos fuertes del proyecto y puntos débiles).

La previsión de los objetivos debe ser realista y adecuada a las posibilidades del negocio (personal, horas de trabajo, ubicación, etc…).

c) Experiencia acreditada en el campo de la hostelería, hasta un máximo de 15 puntos.

- El trabajo por cuenta ajena se acreditará mediante informes escritos de los establecimientos en los que haya trabajado, contratos de trabajo o vida laboral.
  Se puntuará con 0,25 puntos por mes.
- El trabajo por cuenta propia se acreditará con documentación de Hacienda, (alta y baja en I.A.E o declaración de I.V.A). A falta de documentación, podrá presentar declaración jurada, describiendo el negocio y su duración.
  Se puntuará con 0,40 puntos por mes.

d) Plan de promoción del negocio, hasta un máximo de 10 puntos.

Se explicará de qué forma logrará conseguir clientes, las herramientas que utilizará para lograrlo.

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

<u>e) Eskainiko dituen taberna-jatetxeez gain, gehienez 15 puntu emanen dituzten zerbitzu gehigarriak.</u>

- Eskaintza gastronomikoa: gehienez 10 puntu.
  Baloratuko da honakoak eskaintzea: goiz-eguerdian kazolatxoak, ogitartekoak, pintxoak (3 puntu), txikientzako aukerak, (3 puntu) mokadutxoak (2 puntu) eta eramateko aukerak (2 puntu).
- Irekitze/Itxierako ordutegia zabaltzeagatik: gehienez 5 puntu.
  Eskaintzen den irekitzeko edota ixteko ordutegia luzatzeko ordu bakoitzeko puntu 1 emanen da.

<u>e) Servicios adicionales a los de bar-restaurante que proyecta ofrecer, hasta un máximo de 15 puntos.</u>

- Oferta gastronómica: máximo 10 puntos.
  Se valorará ofrecer cazuelitas, bocadillos, pinchos durante la mañana-mediodía (3 puntos), opciones para txikis (3 puntos), picoteo (2 puntos) y opciones para llevar (2 puntos).
- Ampliación de horario de apertura/cierre: máximo 5 puntos.
  Por cada hora de apertura y/o cierre que se oferte se concederá 1 punto.

<u>f) Etxalar/Bortzirietako kultura- eta jai-jarduetan parte hartzea eta/edo negozioan antolatu asmo dituen kultura-jarduerak sustatzea, gehienez 5 puntu.</u>

Etxalarren edo Bortzirietan egiten diren kultura- eta/edo jai-jardueretan parte hartzeko modua deskribatu beharko du, baita Herriko Ostatua lokalerako proiektatutako jarduerak ere, betiere ikuspegi errealista eta sinesgarri batetik.

<u>f) Participación de actividades culturales/festivas de Etxalar/Bortziriak y/o promoción de actividades culturales que proyecta organizar en el negocio, hasta un máximo de 5 puntos.</u>

Deberá describir la forma de participación en las actividades culturales y/o festivas que se desarrollen en Etxalar o en Bortziriak, así como las actividades proyectadas para el local Herriko Ostatua, siempre desde una perspectiva realista y verosímil.

## 9. PROPOSAMENAK IREKITZEA

1. eta 2. gutun-azalak Kontratazio Mahaiak irekiko ditu. Mahaia Leire Olagarai jarduneko alkateak eta bi zinegotzik (Xabier Leiza eta Ainara Aranguibel) osatuko dute, udal-idazkariak lagunduta.

Barne-egintzan, Kontratazio Mahaiak dokumentazio administratiboen gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu, kalifikatu eginen ditu, eta eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztu duten eskaintzak onartzea ebatziko du. Akatsaren bat zuzendu behar bada, bortz egun naturaleko gehienezko epea emanen da.

Jarraian, eta barne-egintzan, Kontratazio Mahaiak onartutako eskaintzen dokumentazio teknikoaren gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu, esleipen-irizpideetako puntuak emateko.

Kontratazio mahaiak akta bat eginen du puntuazioekin eta akta hau iragarki-oholean argitaratuko da eta Osoko Bilkurari emanen zaio. 3. kartazalen irekitze publikoa eginen du Osoko Bilkurak, eta eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira baldintza plegu honen 8. klausulan adierazitako formularen bidez.

## 9.- APERTURA DE PROPOSICIONES

La apertura de los sobres nº 1 y nº 2 se realizará por la Mesa de Contratación, integrada por la alcaldesa en funciones. Leire Olagarai, y dos concejales (Xabier Leiza y Ainara Aranguibel), con asistencia de la secretaria municipal.

En acto interno, la Mesa de Contratación procederá a la apertura y análisis de los sobres de “Documentación administrativa”, calificándola y resolviendo la admisión de las ofertas que hayan presentado en tiempo y forma la documentación exigida. En caso de tener que subsanar alguna deficiencia, se concederá un plazo máximo de cinco días naturales.

Seguidamente, y también en acto interno, la Mesa de Contratación procederá a la apertura y análisis de los sobres de “Documentación Técnica” de las ofertas admitidas con el fin de otorgar los puntos de los criterios de adjudicación.

Los resultados de las puntuaciones de la Mesa de Contratación se reflejarán en un acta que se publicará en el tablón de anuncios y se elevará al Pleno del Ayuntamiento, que procederá a la apertura pública del sobre número 3 —oferta económica—, con aplicación de la fórmula descrita en la cláusula 8 del presente pliego.



ETXALAR
Código Seguro de Verificación: MHCA AAE4 FAJQ EVN9 QZ27
HERRIKO OSTATUA 2026_Baldintza plegua_pliego condiciones
La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en https://egoitzaelektronikoa.etxalar.eus/

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

Eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen pertsonaren alde eginen da esleipena, ustiapen-proiektuari eta eskaintza ekonomikoari emandako puntuak gehituz.

Puntuen berdinketa emanen balitz, zozketaren bidez erabakiko da.

La adjudicación se realizará a favor de aquella persona física o jurídica que haya presentado la oferta más ventajosa, atendiendo a la suma de las puntuaciones del proyecto de explotación y la oferta económica.

En el caso de que en aplicación de los criterios anteriores se produjera un empate, éste se resolverá mediante sorteo.

## 10. BEHIN BETIKO BERMEA

**3.000,00 euroko** behin betiko fidantza ezarri beharko du adjudikazio-hartzaileak, kontratuaren esleipenak sortutako bete-beharrei erantzuteko. Aipatutako fidantza honako moduren batean aurkeztu daiteke: udalaren konturen batean transferentzia eginez (Caixabank edo Nafarroako Rural Kutxan), edo 205/1998 Foru Dekretuak, uztailaren 21ekoa, arautzen duen abala osatuz, kopuru horrekin.

Fidantza hau jartzeko 15 eguneko epea dago, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenetik kontatzen hasita. Ez bada baldintza hau bere denboran eta eran betetzen, kontratua amaitutzat joko da eta behin-behineko fidantza konfiskatuko da.

## 10.- FIANZA DEFINITIVA

La persona adjudicataria del arrendamiento deberá constituir una fianza definitiva por importe de **3.000,00 euros**, para responder a las obligaciones derivadas de la adjudicación del contrato. Dicha fianza podrá constituirse mediante transferencia a las cuentas del Ayuntamiento en Caixabank o Caja Rural de Navarra, o bien mediante aval constituido según el Decreto Foral 205/1998, de 21 de julio, por el importe señalado.

La fianza definitiva se deberá constituir dentro del plazo de los QUINCE (15) días siguientes a la notificación de la adjudicación del contrato. Si no cumpliere en tiempo y forma esta obligación, se declarará resuelto el contrato, con incautación de la fianza provisional.

## 11. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Esleipenaren biharamunetik hasita hamabortz eguneko epean formalizatuko da kontratua, agiri baten bitartez. Agiri hori, administratiboa edo notarioarena izan daiteke.

Esleipendun gertatzen den lizitatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, nahitaez eta ezinbertzean, kontratua formalizatu baino lehen:

- Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, indarrean diren xedapenek ezartzen dizkioten Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa eguneratua duela ziurtatzen duena, lehiaketaren iragarkia NAOn argitaratu ondoko datarekin.

- Jarduera ekonomikoen zergan altan emana dagoela ziurtatzen duen agiria.

- Lizitatzaileak zerga betebeharrak dituen Administrazio Publikoetan eskuduntza duten organoen ziurtagiria, zeinean egiaztatzen den betebehar horiek beteta dituela. Lehiaketaren iragarkia NAOn argitaratu ondoko data izan beharko du ziurtagiri horrek.

## 11.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

Dentro de los QUINCE (15) días siguientes a la adjudicación, se procederá a la formalización del contrato, que podrá realizarse en documento notarial o administrativo.

Con anterioridad a la firma del contrato, la persona adjudicataria deberá presentar ante el Ayuntamiento los siguientes documentos:

- Certificado expedido por la Tesorería Territorial de la Seguridad Social, de fecha posterior a la publicación del anuncio de concurso en el Boletín Oficial de Navarra, que acredite que se encuentra al corriente en el pago de las cuotas de la Seguridad Social.

- Documento que acredite el alta de la adjudicataria en el impuesto de actividades económicas.

- Certificado de la Administración de Hacienda competente, de fecha posterior a la publicación del anuncio de concurso, que acredite que la persona adjudicataria se halla al corriente en sus obligaciones tributarias.

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

- Etxalarko Udalean eta Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatean (lehen, Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea) zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

- Behin-betiko bermea jarri duela egiaztatzen duen agiria.

Aipatutako agiri horiek jatorrizkoak izan beharko dute, edo bertzela, notario edo administrazio bidez egiaztatutako kopiak.

- Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias en el Ayuntamiento de Etxalar y en la Mancomunidad de Servicios de Bortziriak (anteriormente, Mancomunidad de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak).

- Documento que acredite la constitución de la fianza definitiva.

Estos documentos deberán ser originales o fotocopias legalizadas notarial o administrativamente.

## 12. ERRENTAREN ORDAINKETA

Alokairuaren errentaren ordainketa egin beharko da hilabetea pasa eta ondoko bortz egunen barrenean, udal diru-zaintzan, indarrean dagoen B.E.Z. ezarrita. Etxalarko Udalak premiamendu-bidea erabiltzen ahal du errentaren ordainketa atzeratzen baldin bada.

Alokairua bertan behera geratuko da, errentaren ordainketa egin gabe uzten bada 2 hilabetez.

## 12.- ABONO DE LA RENTA

El pago del importe de la renta se hará efectivo dentro de los cinco días naturales siguientes al mes vencido, mediante ingreso del mismo en la Depositaría Municipal, incrementado con el I.V.A. vigente en cada momento. Si la persona adjudicataria incurriese en mora, el Ayuntamiento de Etxalar podrá exigir el cobro por la vía de apremio.

El impago de estos conceptos durante 2 meses será causa de resolución del contrato, por incumplimiento del mismo.

## 13. ARRISKUA ETA MENTURA

Esleipendunak arriskua bere gain hartuz jardungo du kontratu hau gauzatzerakoan. Kontratua betetzen den bitartean jasandako galerak, matxurak edo kalteengatik ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izanen.

Eslependunak ezin du ezein aitzakiaz erreklamatu, ezta akats edo ez-egiteagatik ere, bere eskaintzan ezarritako prezioak handiagotzeko.

## 13. RIESGO Y VENTURA

La ejecución del presente contrato se realiza a riesgo y ventura de la adjudicataria, quien no tendrá derecho a indemnización por causa de pérdidas, averías o perjuicios que experimente durante la ejecución del contrato.

La adjudicataria no podrá reclamar bajo ningún pretexto, ni aún de error u omisión, aumento de los precios fijados en su oferta.

## 14. INSTALAZIOAK ETA ALTZARIAK

Kontratuari erantsiko zaio inbentarioa, eraikinean dauden hornikuntzak eta altzariak zehaztuz. Instalazioen egoera ere zehaztuko da inbentario horretan.

Instalazioen egoerari buruzko azterketa urtero eginen du Etxalarko Udalak eta akta bat eginen da, espedienteari erantsiko zaiona.

## 14.- INSTALACIONES Y MOBILIARIO

En el inventario que se adjuntará al contrato se detallarán los equipamientos y mobiliario contenidos en el inmueble, así como el estado de las instalaciones.

El Ayuntamiento de Etxalar realizará una revisión anual del estado de las instalaciones, levantándose acta de dicha revisión, que se adjuntará al expediente.

## 15. LOKALEN ETA INSTALAZIOEN MANTENIMENDUA

Kontratuak irauten duen bitartean, adjudikazio-hartzaileak lokalak eta instalazioak behar bezala egokituak kontu beharko ditu, inongo kalterik eragin gabe bere itxuran edo mantenimenduan.

## 15.- MANTENIMIENTO DE LOCALES E INSTALACIONES

Mientras dure el contrato, la persona adjudicataria deberá mantener los locales e instalaciones debidamente acondicionados, de manera que no supongan deterioro en su decoro y mantenimiento.



ETXALAR
Código Seguro de Verificación: MHCA AAE4 FAJQ EVN9 QZ27
HERRIKO OSTATUA 2026_Baldintza plegua_pliego condiciones
La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en https://egoitzaelektronikoa.etxalar.eus/

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

Udalak utzitako instalazioak, tresnak eta altzariak egoera onean zaindu behar ditu adjudikazio-hartzaileak, euren ohiko erabilerarako bakarrik erabiliz.

La adjudicataria deberá conservar en buen estado las instalaciones, enseres y mobiliario cedidos por el Ayuntamiento, utilizándose exclusivamente para su uso habitual.

Elementu guztiak alokairuaren momentuan zeuden eran zaintzeko behar diren konponketa guztiak bere kontura egin beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak ordainduko ditu ere materialen eta altzarien berriz jartzeak.

Deberá realizar a su costa todas las reparaciones necesarias para la conservación de todos los elementos en la forma en que se encontraban en el momento del arrendamiento, siendo de su cuenta la reposición de materiales y mobiliario correspondiente.

Esleipendunak bere kontura konpondu beharko ditu instalazioetan, altzarietan eta materialetan zabarkeriaren ondorioz sor daitezkeen narriadura guztiak.

La persona adjudicataria deberá responder de todos los deterioros que por negligencia puedan producirse en las instalaciones, mobiliario y material, reparándolos a su costa.

Udalak ordainduko ditu mantentze eta zaintze gastuak, eraikinaren egitura, konfigurazioa, izaera eta erresistentzian eragina baldin badute.

Se excluyen aquellos gastos de mantenimiento y conservación que afecten de manera fundamental a la estructura, configuración, naturaleza y resistencia del inmueble, los cuales serán de cuenta del Ayuntamiento.

## 16. BERRIKUNTZAK

## 16.- REFORMAS

Esleipendunak ezin izanen du aldaketarik egin lokalak, instalazioak eta zerbitzuetan, Etxalarko Udalak zehazki baimendu gabe.

La parte adjudicataria no podrá introducir variación alguna en los locales, instalaciones y servicios sin autorización expresa del Ayuntamiento de Etxalar.

Nolanahi ere, Udalaren baimenarekin egiten diren obrak jabetzaren onerako geldituko dira, eta kontratuaren bukaeran Udalak ez du kalte-ordainik ordainduko haiengatik.

En cualquier caso, las obras que se lleven a cabo por la parte adjudicataria con permiso del Ayuntamiento, quedarán en beneficio de la propiedad, sin que el Ayuntamiento tenga que abonar indemnización alguna por ello al término de la adjudicación.

## 17. USTIAPENA

## 17.- EXPLOTACIÓN

Esleipendunak zuzenean ustiatuko du *Herriko Ostatua,* eta ezin izanen du alokatu, laga edo eskualdatu.

La parte adjudicataria deberá desarrollar la explotación de “Herriko Ostatua” directamente, no pudiendo cederla, subarrendarla o traspasarla a terceros bajo ningún concepto.

Esleipenduna pertsona juridikoa bada, enpresaren besterentzea eskualdatzetzat hartuko da. Hau da, enpresako bazkide guztiak aldatzen badira, negozioa lagatutzat edo eskualdatutzat joko da eta horren ondorioa izanen da kontratuaren bukaera automatikoa. Hau dela eta, bazkide akziodunen zerrenda aurkeztu behar du Udaletxean enpresa esleipendunak, eta gutxienez hasierako bazkide batek jarraitu beharko du sozietatean errentamenduko epe osoan, negozioa lagatutzat edo eskualdatutzat ez hartzeko.

Si la adjudicataria resultase ser una persona jurídica, la transmisión de la empresa se asimilará al traspaso; es decir, si se produjera en la empresa adjudicataria la sustitución de la totalidad de sus socios por otros nuevos, se considerará que se ha traspasado o cedido el negocio, produciendo automáticamente la resolución del contrato. A estos efectos, la sociedad adjudicataria deberá presentar ante el Ayuntamiento la lista de sus socios accionistas, debiendo mantenerse durante todo el plazo de arrendamiento al menos uno de los socios originarios, para que no se considere el negocio traspasado o cedido.

## 18. ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA

## 18.- FUNCIONAMIENTO DEL SERVICIO

Ostatu eta jatetxeko zerbitzuak emanen dira, gutxienez, astean sei egunez.

Los servicios de bar y comedor se prestarán, al menos, durante seis días a la semana.



ETXALAR
Código Seguro de Verificación: MHCA AAE4 FAJQ EVN9 QZ27
HERRIKO OSTATUA 2026_Baldintza plegua_pliego condiciones
La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en https://egoitzaelektronikoa.etxalar.eus/

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

Atseden-lanaldia eginez gero, lanegunean egin beharko da. Halaber, Etxalarko bertze ostatu eta jatetxeekin adostu beharko da atseden eguna hartzerakoan, denek egun bera hartu ez dezaten.

Irekitzeko gutxieneko ordutegia hau izanen da:

• Neguan: 09:00etatik 20:00etara.

• Urteko gainerako egunetan, uztailean eta abuztuan izan ezik, astelehenetik ortzegunera (atseden-egunean izan ezik): 9:00etatik 21:00etara.

• Ortziral eta larunbatetan, zubietan, jaiegunetan eta uztailean eta abuztuan: 09:00etatik 23:00etara.

Oporrak direla-eta, urtean egutegiko hogeita hamar egunez itxi ahal izanen da. Oporraldi horiek segidako 7 egun naturaleko gutxieneko epeetan eta segidako 15 egun naturaletan hartu ahal izanen dira. Esleipendunak 15 egun lehenago jakinarazi beharko dio idatziz Udalari noiz hartuko dituen oporrak.

Gutxienez, asteko eguneko menua eta asteburuko edo kartako menua eskaini beharko dira asteburuan.

Irekitze-ordutegiak jendaurrean egonen dira, ele biz (euskaraz eta erdaraz) ostatuko sarreran.

Era guztietako dokumentuak edo komunikazio publikoak euskaraz edo, gutxienez, elebidunak (euskara-gaztelania) izan beharko dira, eta lehentasuna emanen zaio euskararen erabilerari hainbat gaitan, hala nola kartan, menuan, prezioetan, oharretan edo errotulazioetan.

Errentariak terraza bat eduki ahal izanen du ostatuaren ondoan, betiere terrazaren espazioa osasungarritasun- eta garbitasun-baldintzetan mantentzen bada, Udalari eskatu ondoren, eta Udalak egoki baderitzo. Terraza jarriz gero, horri dagokion tasa ordaindu beharko da, eremu publikoa erabiltzeagatik.

Urtean behin, eta Etxalarko Udalak eskatuta, jarraipen-bilera bat eginen da errentariarekin, kontratuan ezarritako betebeharrak betetzen diren aztertzeko.

Esleipendunak kontratua garatzean eta gauzatzean egokitzat jotzen dituen hobekuntzak proposatu ahal izanen ditu, betiere idatziz. Proposatutako hobekuntza beharrezkotzat jotzen bada, kontratua aldatzeko Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean aurreikusitakoaren arabera jokatuko da.

En caso de realizar jornada de descanso, deberá ser en día laborable. Asimismo, habrá que coordinarse con los demás bares y restaurantes de Etxalar, de forma que no coincidan todos con el mismo día de descanso semanal.

El horario mínimo de apertura será:

• En invierno: de 09:00 a 20:00 horas.

• Resto del año, excepto julio y agosto, de lunes a jueves (salvo el día de descanso): de 9:00 a 21:00 horas.

• Los viernes y sábados, puentes, festivos y meses de julio y agosto: de 09:00 a 23:00 horas.

Se podrá cerrar por un periodo de treinta días naturales al año por vacaciones. Dichas vacaciones se podrán disfrutar cerrando por periodos mínimos de 7 días naturales seguidos, y con un máximo de 15 días naturales seguidos. La persona adjudicataria deberá avisar al Ayuntamiento por escrito con 15 días de antelación cuándo se va a disfrutar de dichas vacaciones.

Como mínimo se deberá ofrecer menú del día entre semana y un menú fin de semana o a la carta durante el fin de semana.

Los horarios de apertura deberán estar expuestos en bilingüe (euskera/castellano) en la entrada del bar.

Todo tipo de documentos o comunicaciones al público deberán estar en euskera o, al menos, bilingüe (euskera-castellano), priorizando el uso del euskera en cuestiones como carta, menú, precios, avisos o rotulaciones.

La arrendataria podrá disponer de terraza junto a la posada siempre que se mantenga en condiciones de salubridad y limpieza el espacio de terraza, previa petición al Ayuntamiento, y si éste lo estima oportuno. En caso de que se instale la terraza, deberá abonarse la correspondiente tasa por ocupación de vía pública.

Una vez al año y a petición del Ayuntaiento de Etxalar, se celebrará una reunión de seguimiento con la arrendataria para analizar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el contrato.

La adjudicataria podrá proponer, siempre por escrito, las mejoras que en el desarrollo y ejecución del contrato tenga por conveniente. De estimarse necesaria la mejora propuesta, se procederá conforme a lo prevenido en la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril de Contratos Públicos, para la modificación del contrato.

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

Adjudikazio-hartzaileak derrigorrez bete beharko ditu indarrean dauden araudiak honakoen inguruan: ostalaritza, osasuna, segurtasuna, etab.

La persona adjudicataria está obligada al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia de hostelería, sanidad, seguridad, etc.

## 19. LANGILEGOA

## 19.- PERSONAL

Adjudikazio-hartzaileak lanaren alorrean, gizarte segurantzaren alorrean eta laneko segurtasun eta osasunari dagokionean indarrean diren xedapenak bete beharko ditu nahitaez. Aipatutako betebehar horiek betetzen ez baditu, Etxalarko Udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain.

La parte adjudicataria queda obligada al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo en la contratación de personal a su servicio. El incumplimiento de estas obligaciones no implicará responsabilidad alguna para el Ayuntamiento de Etxalar.

Beharrezkoak diren itxura eta portaerako baldintzak betetzea eskatuko die adjudikaziodunak, bere zerbitzura dauzkan langileei.

La parte adjudicataria estará obligada a exigir las necesarias condiciones de presencia y comportamiento en el personal a su servicio.

Langileei dagokienez, esleipendunak langileen matrikula-liburua, altak eta bajak erakutsi beharko ditu, bai eta Gizarte Segurantzaren kuoten hileko egiaztagiriak ere.

En cuanto al personal, la adjudicataria deberá exhibir el libro de matrícula del personal y las altas y bajas, así como los justificantes mensuales de las cuotas de la Seguridad Social.

Esleipendunaren konturako langile guztiek dagokion lan-kontratuaren babesa izan beharko dute, eta indarrean dagoen lan-araudia betez kontratatuta egon beharko dute. Langile horiek ez dute lan-harremanik izanen Etxalarko Udalarekin, esleipendun bakar baten mende dagoela ulertzen baita. Izan ere, esleipendun horrek patronatukide izateari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izanen ditu lan-arloko legeriaren arabera, eta ez da inola ere esleipendunaren eta bere langileen artean sortutako betebeharren erantzukizuna izanen, nahiz eta hartzen dituen kaleratzeak eta neurriak kontratua betetzearen, ez betetzearen, hutsaltzearen edo interpretatzearen ondorio zuzenak edo zeharkakoak izan.

Todo el personal trabajador por cuenta de la adjudicataria deberá estar amparado por el correspondiente contrato de trabajo y deberá estar contratado cumpliendo la normativa laboral vigente. Dicho personal no adquirirá relación laboral con el Ayuntamiento de Etxalar, por entenderse que el mismo depende única y exclusivamente de la parte adjudicataria, la cual tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes a su calidad de patrono respecto al citado personal de conformidad con la legislación laboral, sin que en ningún caso sea responsabilidad de las obligaciones nacidas entre la adjudicataria y su personal, aun cuando los despidos y medidas que adopte sean consecuencia directa o indirecta del cumplimiento, incumplimiento, rescisión o interpretación del contrato.

Aurrekoaren ondorioz, esleipendunak, enpresa patronala den aldetik, Gizarte Segurantzan alta eman behar die jardueran lan egiten duten langile guztiei, eta dagokion lan-mutualitatearekin elkartze-dokumentua sinatu behar du, lan-istripuen arriskuak estaltzeko, gai horri buruzko legeriak etorkizunean ezartzen edo ezartzen duena zehatz-mehatz betez.

Como consecuencia de lo anterior, la adjudicataria, como empresa patronal, ha de dar de alta en la Seguridad Social a todo el personal que preste sus servicios en la actividad y suscribir el documento de asociación con la Mutualidad Laboral correspondiente que cubra los riesgos de accidentes de trabajo con exacto cumplimiento de cuanto establece o establezca en el futuro la legislación sobre la materia.

Esleipendunak lana egiteko beharrezkoak diren arropa eta tresnak eman beharko dizkie langileei. Halaber, langileak prestatu beharko ditu eginen duten lanaren oinarrizko ezagutzetan.

La persona adjudicataria deberá dotar a su personal de la ropa y utensilios necesarios para el desarrollo del trabajo. Asimismo, tendrá la obligación de formar a su personal en los conocimientos básicos del trabajo que van a realizar.



ETXALAR
Código Seguro de Verificación: MHCA AAE4 FAJQ EVN9 QZ27
HERRIKO OSTATUA 2026_Baldintza plegua_pliego condiciones
La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en https://egoitzaelektronikoa.etxalar.eus/

FIRMADO POR
Idazkari/Kontu-hartzailea - Secretaria/Interventora
IZASKUN GORTARI SEIN
18/03/2026
FIRMADO POR
Etxalarko Udaleko jarduneko alkatea / Alcaldesa en funciones del Ayuntamiento de Etxalar
LEIRE OLAGARAI GOIENETXE
18/03/2026
SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
18/03/2026

## 20. OSASUN-BALDINTZAK

Adjudikazio-hartzailearen erantzukizuna izanen da, *Herriko Ostatuko* instalazioak garbi eta osasun egoera onean izatea momentu oro. Langile guztiek izan beharko dute janariak erabiltzeko agiria.

## 20.- CONDICIONES SANITARIAS

La parte adjudicataria será responsable del correcto funcionamiento sanitario del “Herriko Ostatua”. El personal contratado para prestar sus servicios en el local deberá estar en posesión del carnet de manipulador de alimentos.

## 21. ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZUKIZUNA

Esleipenduna izanen da bere edo bere langileen erruz edo zabarkeriagatik kontratua gauzatzean sortzen diren kalteen erantzule bakarra, bai pertsonalak, bai materialak.

Era berean, esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, garatutako ostalaritza-jardueraren ondoriozko gorabeherak estaltzeko.

## 21. RESPONSABILIDAD POR DAÑOS

La adjudicataraia será la única responsable por los daños que, por su culpa o negligencia, o la de su personal, se causen en la ejecución del contrato tanto personales como materiales.

Asimismo, la adjudicataria deberá contar con el correspondiente seguro de responsabilidad civil que cubra las incidencias derivadas del ejercicio de la actividad hostelera desarrollada.

## 22. ERREKLAMAZIO-ORRIAK

*Herriko Ostatuan* erreklamazio-orriak bezeroen eskura egon beharko dute. Aurkezten diren erreklamazioen berri eman beharko dio adjudikaziodunak Etxalarko Udalari

## 22. HOJAS DE RECLAMACIÓN

En el local “Herriko Ostatua” deberán hallarse a disposición del público las correspondientes Hojas de Reclamación, quedando la parte adjudicataria obligada a informar al Ayuntamiento de Etxalar de aquellas que se originen.

## 23. BAIMENAK, LIZENTZIAK ETA ZERGAK

Esleipendunari dagokio lanak burutzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala ofizialak nola norbanakoenak.

Lokalaren ustiapenaren ondorioz indarra duten xedapenen arabera aplika daitezkeen zerga, karga, tasa edo arbitrioak — Estatua, Foru Komunitatea edo Udalekoak— esleipendunaren kontura izanen dira.

## 23. AUTORIZACIONES, LICENCIAS Y TRIBUTOS

